

2018ko APIRILAREN 12ko OSOKO **BILKURA ARRUNTAREN LABURPENA**

1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.

2018/03/01eko akta onetsi da.

2.- Hasiara batez onestea aurrekontuaren 1/2018 aldaketaren Espedientea. Kreditu bereziak eta kreditu gehikuntza onestea.

EH Bildu Ultzama Udal taldeko Picabea zinegotziak gaia azaldu du.

Horretarako komentatu du, banda zabalaren obren kasuan, Nafarroako Gobernuaren NASERTIC enpresarekin proiektua eta obren lanak beraiek kudeatzeko akordio bat izanik, hasiera batean pentsatzen zen TIPeko laguntzak enpresa honek kudeatuko zituela. Horren arabera, Ultzamako Udalak bere aurrekontuetan jarri beharko zuen soilik laguntza horiekin diruz lagundu gabeko kostuaren diferentziaren gastua, eta hori izan zen egin zena (aurrekontuetan diferentzia jarri). Kontua da azkenean, NASERTIC enpresak ezin dituela berak zuzenean udaletara zuzendutako TIPeko diru laguntzak jaso, eta, beraz, beharrezkoa da orain aldaketa hori egitea, obren gastu osoa eta baita laguntzen kobratzeak ekarriko duen diru-sarrerak sartuz.

Eskolako lanei buruz komentatu du hasiera batean kantitate txiki bat esleitu zela, eta orain kopuru hori haunditu behar dela.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta komentatu du bere garaian bi udal taldeak 2018ko aurrekontuak azaltzeko elkartu zirenean jada abisatu zutela bi kantitateak esleitzea zela zuzena –gastu osoa eta TIPetik jaso behar zen diru-laguntza- baina ez zitzairen kasurik egin, hori dela eta bere udal taldea gai zerrendako puntu honen bozketan abstenitu egingo da.

Martinez Urionabarrenechea alkateak gai batzuk aipatu ditu banda zabala eramateko hoditeriak jarraitu behar duen trazadurari buruz baita NASERTIC enpresarekin eta kontzejuekin bilera bat egin zela, non Oyarzun Alkozko kontzejuburu gisa egon zen eta, bertan esan zuten obrak 2019an amaitzea aurreikusten zela. Aipaturiko bileran adostu zutenkontzeju bakoitzak aztertuko zuela zenbat pertsona egongo liratekeen banda zabalera konektatzeko interesatuta, eta gero pertsona interesatuen zerrenda NASERTIC enpresari jakinarazi behar ziola, interesa duten pertsonen kopurua funtsezko kontua baita obrak eta bideragarritasuna zehazteko orduan. Aldi beran komentatu du NASERTIC

enpresak udalaren eta kontzejuen esanera zeudela esan zuela, sortu litezkeen zalantza eta kontu teknikoak konpondu eta erantzuteko.

Bukatzeko alkateak komentatu du eskutitz/gogorrazpen bat bidaliko zaiela kontzejuei banda zabalera konektatzeko interesa duten pertsonen zerrenda osatu dezaten.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Abstentzioak: Erviti, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

3.- 2018ko udan Ultzamako Udalaren igerilekuko instalazioak kudeatzeko modua onestea kudeaketa zuzenaren gisara. Zerbitzu hori emanen duten langileak kontratatzeke deialdiak onestea.

Alkateak gaia azaldu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta 2018ko udaldirako igerilekuko tabernako zerbitzuaren hurrengo kontratazioaren inguruan iradokitu du baldintza-agiria lantzen denean aurreikusi dadila hasieratik zerbitzu hau Udalaren aldetik diruz lagunduta egongo dela, kontratazio hau hutsik geratu ez dadin aurreko urtean gertatu zen bezala eta berriro baldintza-agiria baldintza honekin onartu behar izan ez dadin.

Aho batez onetsi da.

4.- Iraizozko (Ultzamako bailara) 12. poligonoko 1230., 1231. eta 127. lurzatiko UE-01 unitateko Hiri Jarduketarako Plan Berezia. Espedientea behin betiko onestea eta bidezkoak diren erabakiak hartzea.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez onetsi da.

5.- Hasiera batez onestea Birzatzeko Proiektua eta Hirigintza Hitzarmena aprobetxamenduaren %10eko lagapena diruz ordaintzeko, hori guztia

Arraitz-Orkingo (Ultzamako Bailara) 9. poligonoko 354. lurzatiko UE.0.2 exekuzio unitateari dagokionez.

Alkateak gaia azaldu du.

Jarraian Agrupacion Ultzama udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta komentatu du bere Udal taldearen aldetik ados daudela berpartzelatze proiektua onartzearekin baina hitzarmen ekonomikoaren edukiarekin ez daudela inondik inora ere ados eta batez ere, Ultzamako udalaren aldeko nahitaezko lagapeneko ustiapen urbanistikoaren %10eko balioespenaren edukiarekin, honako arrazoi hauengatik:

Aipaturiko prezioa oso altua iruditzen zaie eta beraz, interesatuendako oso garestia.

Ulertzen du jendea Ultzaman bizitzen gelditzeko, ahalik eta gehien erraztu beharko litzatekeela eta horretarako etxebizitzak eraiki daitezela, eta modu honetan guztiz kontrakoa eragiten da.

Denbora asko daramate bere taldearen iritzi hau mantentzen (aurreko osoko bilkuretan ere erabili izan da beste berpartzelatze proiektu batekin eta Zenotzen onartutako hitzarmen ekonomikoarekin).

Iruditzen zaie ezarri den lurzoruaren prezioa merkatutik erabat kanpo dagoela eta ez duela Ultzama ondoko udalen irizpidearekin bat egiten: gauzak horrela, Atezen 80€tan balioesten da, Odietan 120€tan eta Ultzaman, aldiz 160€tan.

Horregatik aipaturiko prezioa jaitsi dadila eskatzen dute edo, are hobekiago, ezer ordaindu behar ez izatea eta trukean interesatu/sustatzaileen kargu beste konpensazio formula batzuk aurki daitezela, lursail-lagapena edo erabilera publikorako lursail-lagapena, edo beste sistema ezberdin batzuk.

Ulertzen dute abonua sistema ekonomiko hau legeak salbuespenekotzat hartzen duen zerbait dela baina hemen arau bihurtu dela eta ez da horrela, salbuespena da. Horregatik interesatuak/sustatzaileak bakarrik eskatzen edo nahi duenean erabili beharko litzateke sistema hau, gainerako kasuetan ez litzateke ezer ordaindu behar, Udala konpensatzeko beste sistema edo modu batzuk bilatuz.

Azkenik adierazi du bere aldetik ez dutela zalantzan jartzen Udalaren Hirigintza-teknikariaren profesionaltasuna, baina irizpide edo balioespen metodo asko daudela uste du eta egia dela ondoko udaletan gutxiago kobratzen dela, eta gainera, ordanketa hau saihesten saiatu beharko litzatekeela eta kasu hauetan Ultzamako udala konpensatzeko beste sistema batzuk bilatu, jendea Ultzaman bizitzen gera dadin, hori baita helburua.

Martinez Urionabarrenechea alkateak hartu du hitza eta esan dio berriz aztertuko dutela balioespen honen gaia eta udaleko hirigintza-teknikariarekin hitz egingo dutela ea luzoruaen balioaren prezio altuaren kontu honi konponbideren bat bilatu ahal zaion eta bere aldetik ez direla inolako konpobide baztertzen.

Jarraian Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du berriro hitza eta bere Udal taldea berpartzelatze proiektuaren alde baina baliospen ekonomikoaren hitzarmenaren aurka dagoenez, bi gaiak bereiztuta bota daitezzen proposatu du eta alkateak ezezkoa erantzun dio, orain bi gaien hasiera bateko onespena baita, eta bere kasuan behin betiko onespeneren orduan tratatuko dela berriro ere kontu hau

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Aurreko ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

6.- Hasiera batez onestea Birzaitzeko Proiektua eta Hirigintza Hitzarmena aprobezaxamenduaren %10eko lagapena diruz ordaintzeko, hori guztia Gorrontz-Olanoko (Ultzamako Bailara) 1. poligonoko 2. lurzati UE.0.2 exekuzio unitateari dagokionez.

Alkateak gaia azaldu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du gai honekiko bere taldearen iritzi edo irizpideak eguneko gai zerrendako aurreko puntuan emandakoaren berdina dira.

Jarraian Martinez Urionabarrenechea alkateak hartu du hitza eta aipaturiko zinegotziari erantzunez, era berean adierazi du erantzun emana geratu dela eguneko gai zerrendako aurreko puntuan.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

7.- Hirigintza eskumenak eskuordetuak dituzten bailarako kontzejuei 2017. urteko ekitaldian eman diren obra baimenak tramitatzeko tasengatik bildutako zenbatekoak itzultzea.

Alkateak eta idazkariak gaia azaldu dute eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu dute.

Aho batez onetsi da.

8.- Alkatetzaren 2018ko martxoaren 13ko 31/18 Ebazpena berrestea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren, Ultzamako Udalaren eta "Autobuses la Pamplonesa S.A." enpresaren artean Ultzamako bailarako bidaiarien garraio publikoko 2018. urteko zerbitzua finantzatzeko dagoen Lankidetzaren Hitzarmena luzatzeko.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez onetsi da.

LEHENA.- Lankidetzaren hitzarmenaren luzapena onestea, honen helburua Ultzamako haranerako bidaiarien garraio-zerbitzuaren finantziaketa izanik, 2018ko abenduaren 31ko dataraino.

9.- Alkatetzaren informazioak.

Alkateak gainerako korporazioko kideei honako gai hauen inguruko informazioa helarazi die:

.- Momentu honetan Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen Kirol Teknikari koordinatzaile lanposturako pertsona baten hautapen-prozesuan gaude eta, horri dagokionez, apirilaren 17an izangaien behin betiko zerrenda onetsiko da eta azterketak laster egiten saiatuko dira.

.- Alkatetzaren aldetik udaletxeko bulegorako administrari laguntzaileen zerrenda osatzeko deialdi bat onartu berri da, behar izanez gero hauen aldi baterako kontrataziorako. Asmoa aipaturiko zerrendako lehenengo pertsona kontratatzea da, gutxienez gaur egungo langile batek eskatu duen soldatarik gabeko 3 hilabeteko denboraldian gutxienez. Kontratazio honen zenbatekoa 2018. urteko aurrekontuak egiterakoan aurreikusitakoa zen.

.- GARRAPO SL enpresari Udaletxearen "Gazte Txoko"aren sarreraren eta beheko solairuko lokalaren erabilera-baimena eman behar zaio, bertatik Ultzamako Parke Mikologikoaren kudeaketa eta jarduerak eraman ditzaten. Kontua da aipaturiko enpresak orain arte Alkotzen izan dituen bulegoak utzi behar izan dituela eta hori dela eta hilabete bateko lokalaren aldi baterako erabilera eskatu digute orain udaberrian, eta beste hilabete eta erdi udazkenean. Kontuan izanik garatu behar duten jarduera Ultzamako Udalarendako interes publikokoa dela, honen erabilergatik kobratu behar zaien prezioa Euskararen Mankomunitateari kobratzen zaion berdina izan behar da, hau da, kobratu behar zaien kantitatea hornikuntza gaien gastu kontzeptuagatik bakarrik izan behar da.

10.- Mozioak

2017an aprobetxatu eta hobetzeko urteko planari dagokion Loiketa inguruan kokaturiko 5.422 pago zuhaitz sortak osaturiko baso ustiapenaren besterentze espedientea. Espedientearen hasierako onespena, besterentzeko baldintza administratiboen agiria, balditza teknikoen agiria, tramitazioa eta espedientean aurreikusitako aipaturiko espedientearen onspena.

Gai hau ez da osoko bilkurako gai zerrendan sartu baimenaren eta lotea markatzearen ebazpena duela bi egun bakarrik iritsi baita, eta proposamenaren presa lote hau uda baino lehen mozten hasteko besterendu ahal izateak dakar, mozteko garairik onena baita.

Akordioaren eduki zehatzari buruz –baso aprobetxamendu hau besterentzeko hasierako akordioa- Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta bere taldearen aurkako botoa iragarri du, bere garaian, aurreko legegintzaldietan bere taldea kritikatzin zutelako Ultzamako hermenditik egur asko ateratzen zela argudiatuz, eta orain kantitate berdina edo gehiago ateratzen ari dela egur gehiegi ateratzeko arriskua ikusten dutelako.

Gai honen inguruan mendiko kudeaketaz arduratzen den EH Bildu Ultzama taldeko Doray zinegotziak erantzun dio orain ateratzen den eta lehen ateratzen zen kantitatearen batezbesteko diferentziarik ez dagoela. Urtero Ultzamako hermenditik 50 hektarea "erreparatzen" dira, 90 hektarea erreparatu beharko liritekeela adierazi zaien arren, eta gainera, urtero eremu bat erreparatzerakoan ustiatu beharreko mendia kalitate onekoa edo kalitate txarrekoa izan daiteke eta gertatu daiteke ere bai erreparatzeko gunean zuhaitz garbiketa egitea eta eskatu daitekena da baita ere zuhaitzak landatzea, moztu eta garbitu beharrean.

Aldi berean, EH Bildu Ultzama Udal taldeko Picabea zinegotziak gai honen inguruan erantzun du, adieraziz, egiten ari dena Baso-kudeaketa planak markatzen dituen pausuei jarraitzea dela, bere garaian bi Udal taldeek onartu zuten dokumentua, eta hori dela eta uste dute ez dela koherentea Agrupacion Ultzama Udal taldearen jarrera hau ez baitute logikoa ikusten beraiek bertan onartutako Baso kudeaketa planaren aurka botoa ematea.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza berriro eta bere jarrera mantendu du eta horrela ere ez dela adierazi du, Baso kudeaketa planarekin ados daudela, baina hau bera modu ezberdinetan garatu daitekeela.

Gaiaren inguruko eztabaida bat sortu da eta bakoitzak bere jarrera mantendu du.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Aurreko ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

11.- Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2018ko 21. ebazpenetik 45.era.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak Ultzamako eskolako eraikineko erreforma lanak egiteko Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari eginiko laguntza ekonomikoaren eskaerari dagokion alkatetzaren 42. ebazpenaren edukiaren inguruan komentatu du bertan esaten dela aipaturiko obrak 2018ko aurrekontuen aldaketa bati esker finantziatuko direla. Horri dagokionez uste du aurrekontu aldaketak salbuespenezko modu edo bitartekoak direla eta, hori dela eta, horretara horrelako arintasunarekin joateak "krak" egiten diola, 2018ko aurrekontuak egiterako orduan posiblea izan baitzen gastu hori hasieratik aurreikustea.

Gai honen inguruan, Martinez Urionabarrenechea Alkateak eta EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak erantzun diote aurrekontuak egiteko momentuan guztiei erakutsi zizkietela eta zer zegoen bazekitela eta momentu hartan ez zutela ezer esan, eta onartutako aurrekontuan ez aldatzen saiatzen direla baina beste erremediorik ez badago egiten dela.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziaren aldetik alkatetzaren 39. ebazpenaren edukiaren inguruan, aldi honetan egondako ondareengatik eta zerbitzuengatik izandako gastuei dagokionez, komentatu du udalarendako belarra mozteko makina berri bat erosi denez, espero du hemendik aurrera lorategien mantentze lanak udal langileek berek egingo dutela, eta Gobernu taldearen kideek horrela egingo dela erantzun diote.

12.- Erreguak eta galderak.

Erregua.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak Ultzamako Udalaren hermerdiaren "goiko" belardien artzaintza eskubideen banaketari dagokionez, aprobetxamendu hauen behin betiko adjudikaziodunen zerrenda bat ematea eskatu du eta Alkatetzak horrela egingo dela erantzun dio.

Galdera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak bailarako oinezkoen bideen eta xenden konponketaren gaiari dagokionez, hartarako plan edo programazioren bat ote dagoen galdetu du, Elordi industriaguneko kalearen kasuaren inguruan bezala, eta EH Bildu Ultzama Udal taldeko Doray zinegotziak erantzun dio aipaturiko bideak konpondu behar direla eta horretarako eguraldi onaren zain daudela.

Galdera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak Udalaren biomasa plantarentzako ezpalak biltegiratzeko nabe berriaren ondoan eta Larraintzarko kontzejuaren bide baten ondoan, Udala egiten ari den obrari dagokionez, galdetu du ea aipaturiko kontzejuarekin istilu edo desadostasunen bat egon den obra horien inguruan, eta EH Ultzama Udal taldeko Picabea zinegotziak erantzun dio, nahiz eta Udalaren Hirigintza-teknikariari obrak bakarrik udal esparruan eragin behar zuela esan zitzaion eta horrela egin dutela uste badute ere, badirudi Larraintzarko kontzejuak beste iritzi bat duela eta kontsideratzen du bide publikoari eragiten diola, hau beraien jabetzakoa dela esaten dute, eta hori dela eta gai hau argitu behar da bi aldeen eta teknikoaren artean.

Eskaera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak esan du aurreko osoko bilkuran LACTEOS GOSHUA SA enpresaren nabe batean zeuden Biogas plantako motorrekin erlacionatutako elementuen inguruan galdetu zuela eta, erantzunik eman ez zaionez, Idazkaritzari txosten bat egin dezala eskatu dio desefektatu ez ziren baina ez dauden

edo agertzen ez diren eta nora joan diren ez dakiten ondareen kontu hau argitzeko.

Horri dagokionez uste du han zeuden plantako kogenerazio motorrak (3) bakarrik desafektatu zirela, baina ez galdara, teleagintea eta aerotermoak, elementu edo tresna elektrikoek gain (transformatzaileak eta zeldak), eta bukatzeko esan du hauek balore altua dutela.

Gaia komentatu da eta amaitzeko, alkateak, elementu elektrikoak ez direla saldu esan du, operazioa gelditu baitzen eta ez zen eroslearekin kontratua sinatu.

Eskaera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak aurreko osoko bilkuran hitz egin zen kontu baten inguruan, Ultzamako biogas plantaren aktiboaren balioespenaren inguruan, eta BIOENERGIA ULTZAMA SA enpresaren kitapen txostenaren Merkataritza auzitegiaren onespeneri buruz, honen inguruko ohar batzuk egin ditu, zein oraingo aktan espresuki bilduta gera daitezzen nahi du, honako hauek izanik:

.- 2014ko azaroaren 5ean BIOENERGIA ULTZAMA SA enpresaren konkurtso administrazioak aurkeztutako enpresaren kitapen plana helarazi zitzaion epaiketari bertaratutako aldeei, bere kasuan alegazioak aurkez zitzaion.

.- 2014ko abenduaren 4an Ultzamako udalak aipaturiko kitapen planari alegazio idazki bat aurkeztu zion honen etetea eskatuz, kontzesio kontratuaren behin betiko ebazpena egin arte. Ildo beretik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak zuen alegazio bat egin zuen.

.- 2015eko uztailaren 8an konkurtso administrazioak Merkataritza epaitegiari jakinarazi zion bere alegazioak bidaltzea ahaztu zitzaion, aipaturiko unean bidali zizkiola.

.- 2015eko irailaren 1ean Merkataritza epaitegiak auto bat egin zuen Kitapen plana onartuz, aldeak proposatutako aldaketekin, beraz oraindik irmoa ez zela esanez.

.- Ez zen inongo alegaziorik aurkeztu aipaturiko kitapen plan horren aurka, hori dela eta izate irmoa hartu zuen 2015eko urriaren 27an, eta horrela eman zuen aditzera.

.- 2015eko urriaren 27an konkurtso administrazioak kitapen plana luzatzea eskatu zuen, bertan kontzesio administratiboa unilateralki ebazteko aukera sartuz.

.- 2015eko abenduaren 10ean Merkataritza epaitegiak interesatuei jakinarazpen bat bidali zien honi buruzko alegazioak aurkezteko.

.- 2016ko urtarrilaren 9an Merkataritza Epaitegiak kitapen planaren irimotasuna deklaratu zuen administrazio konkurtsoak proposaturiko aipaturiko klausularen gehitzearekin.

.- Ultzamako Udalak ez zuen aipaturiko kitapen plana errekurritu, hori dela eta irmo izaera hartu du.

Gai hauen inguruan, Martinez Urionabarrenechea Alkateak entzun dituela erantzun dio baina lekuz kanpo daudela uste duela.

Galdera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak Larraintzarko Benta zentro zibikoko garbitasun egoerari buruz, komentatu du berau garbia egoten ez denaren berriak iritsi zaizkietela, hori dela eta maizterrak zentzu horretan beraien betebeharrak betetzen ari ote diren galdetu du. Gai hauen inguruan, Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio berari justu kontrako berriak iritsi zaizkiola, hau da, aipaturiko zentro zibikoa garbia egoten dela, eta berak han egiaztatu ahal izan duela bertan egon denean eta zehazki egin duen azkeneko bisitan. Komentatu du baita ere, kontsideratzen duela zerbitzuaz, garbitasunaz edo beste edozein gaien inguruan kexak baldin badaude, hoberena hauek idatziz egin eta udaletxeko bulegoetan aurkeztea dela, behar bezala aintzat hartzeko, eta amaitzeko esan du izan litekeela, lokala goizean garbitzen denez, berau arratsaldeko azken orduan zikintzea.